


15 ARTEA EZAGUTZEN
DESCUBRIENDO ARTEA

# 15 ARTEA EZAGUTZEN
## DESCUBRIENDO ARTEA

Arteako auzoen izaera barru-barrutik ezagutzeko ibilbide lasaia, baseliza zaharrez eta landa eremuko bizimoduaren adierazle diren baserriez inguratuta.

Un recorrido tranquilo que nos muestra el carácter de los barrios de Artea, jalonado por viejas ermitas y rodeado por la inconfundible campiña vasca salpicada de caseríos.

| | | |
|---|---|---|
| IRTEERA / HELMUGA | Ekomuseoa | SALIDA / LLEGADA |
| LUZERA | 6,1 km | LONGITUD |
| GEHI.MALDA (+) | 180 m | DESNIVEL (+) ACUMULADO |
| DENBORA | 1h 30' | TIEMPO ESTIMADO |
| ZAILTASUNA | erraza fácil | DIFICULTAD |





San Migel (Elexabeitia)


Ekomuseoa

## MAURIZIA ETA LEON

Ibilbide honetan ezagutuko ditugun parajeetan, Bizkaiko musika tradizionalak ezagutu duen erreferentziazko bikotea izan den Maurizia Aldeiturriagaren panderoa eta Leon Bilbaoren alboka entzuten dira oraindik. Leon Artean jaio zen, Maurizia ostera, Zeberion jaioa izan arren, ezkondu eta gero Arteako Elexabeitia auzora joan zen bizitzera, San Migel ermitaren ondoko baserri batera. Bikote honi eta Fasio edo Basilio bezalako trikitilariei esker, gerraosteko urte ilunetan zehar tradizioaren zati handi bat mantendu zen 70. hamarkadara arte, belaunaldi berriek lekuko baliotsua hartu zuten arte.




www.gorbeiaeuskadi.com

**OROZKO**
Plaza Zubiaur
☎ 946 122 695

**MURGIA**
Plaza Bea-Murgia
☎ 945 430 440

EUSKADI BASQUE COUNTRY · araba álava foru aldundia diputación foral · Bizkaia foru aldundia diputación foral · Gorbeia · Gorbeialdeko Kuadrilla Cuadrilla de Gorbeialdea · Gorbeialde


Santiago (Elexabeitia)

# Ibilbidea

**Ekomuseoan** hasi, herriko plaza zeharkatu eta hilerrira bidean emango ditugu gure lehenengo pausuak. Hilerriaren ezkerretik **Santa Mañe**ko atsedengunera heldu eta gero, aldapan gora doan lehenengo auzobidetik igoko gara.

Behin **Mendietan**, errepidearen ezkerrean dagoen bidezidorrean sartu eta azken etxe baten parean agertuko gara. Hau inguratzen duen hesiaren eskumako aldean dagoen bidexka jarraituko dugu orain, basoan murgilduz eta berriro ere Santa Mañera helduz, baina oraingoan beherantz jarraituz errepidera heldu arte.

Behin errepidean gaudela, Zeberio edo Orozkora desbideratzeko bidegurutze nagusira heldu baino lehen, ezkerretara dagoen auzobidea jarraituz **Elexabeitia** auzoko **San Migel** eta **Santiago** baselizak aurkituko ditugu.

Behin auzoa atzean utzi dugula, Orozkora doan errepidetik 200 m egin beharko ditugu kontu handiarekin. Errepidearen ezkerreko aldean dagoen zuhaiztian, pertsonentzako igarobidea eta **Garai** auzora heltzeko bidexka aurkituko ditugu.

Garaiko lehenengo etxeekin topo egiterakoan, eskumako aldean dauden ortuetara doan bidexka jarraituta **Esparta** auzora helduko gara lehenengo eta **Larrazabal**era ondoren.

Larrazabaleko lehenengo baserrian ezkerretara egingo dugu, baita bigarrenean ere, etxe zuriaren eskumako aldean dagoen bidezidorra jarraituz. Hortik apur batera, Ugarte auzora heltzeko auzobide batekin egingo dugu topo.

Aldapa jaitsi eta hurrengo bidegurutzera heltzerakoan, ezkerretara egingo dugu, abiapuntura heldu baino lehen dauden azkenengo baserrien ondotik igaroz.

# Itinerario

Partimos en el **Ecomuseo,** atravesamos la plaza del pueblo y damos los primeros pasos hacia el cementerio. Tras llegar al área de descanso de **Santa Mañe** por la izquierda del cementerio, ascendemos por la primera carretera vecinal que empieza a subir cuesta arriba.

Una vez en **Mendieta**, nos adentramos en el sendero situado a la izquierda de la carretera para aparecer frente a una última casa. Continuamos ahora por el sendero situado a la derecha del vallado que lo rodea, sumergiéndonos en el bosque y volviendo a llegar a Santa Mañe, pero esta vez descendiendo hasta llegar a la carretera.

Una vez en la carretera y antes de llegar al cruce principal para desviarse a Zeberio u Orozko, seguimos el camino vecinal situado a la izquierda donde nos encontramos con las ermitas de **San Miguel** y **Santiago** del barrio de **Elexabeitia**.

Una vez que hemos dejado atrás el barrio, recorremos 200 metros por la carretera que va a Orozko con mucho cuidado. En el arbolado situado a la izquierda de la carretera encontramos un paso para personas y un sendero que nos lleva al barrio de **Garai**.

Al encontrarnos con las primeras casas de Garai, continuamos por el camino que conduce a las huertas situadas a la derecha hasta llegar al barrio de **Esparta** primero y a **Larrazabal** después.

En el primer caserío que encontramos en Larrazabal giramos a la izquierda, al igual que en el segundo, siguiendo el sendero situado a la derecha de la casa blanca. Un poco más adelante, nos encontraremos con un camino vecinal que llega al barrio de Ugarte.

Al descender la cuesta y llegar al siguiente cruce, giramos a la izquierda, pasando junto a los últimos caseríos existentes antes de llegar al punto de partida.


Larrazabal


Maurizia eta Leon

## MAURIZIA Y LEON

En los parajes que recorremos en este itinerario por los barrios de Artea aún resuena la pandereta de Maurizia Aldeiturriaga y la alboka de Leon Bilbao, una de las parejas referente en la música tradicional en Bizkaia de todos los tiempos. Leon nació en Artea, mientras que Maurizia, nació en Zeberio y al casarse, fue a vivir a un caserío junto a la ermita de San Miguel en el barrio Elexabeitia de Artea. Gracias a esta pareja y otros trikitilaris como Fasio o Basilio se mantuvo gran parte de la tradición durante los oscuros años de postguerra hasta los años 70, en que las nuevas generaciones tomaron su valioso testigo.

## GOGORATU! ¡RECUERDA!

**Ingurunea, flora eta fauna errespetatu.** Zarata egitea ekidin, ez egin surik eta zure txakurra lotuta eraman.

**Ingurunea garbi mantendu.** Ez utzi zaborra bertan; utzi edukiontzietan edo eraman ezazu.

**Seinaleztapena errespetatu.** Prestatutako lekuetan aparkatu, bideak erabili eta atakak itxi.

**Arreta artzai txakurrekin**, utzi bakean, lanean daude. Hurbiltzen badira, lasai egon, ez egin korrikarik eta eraso bezala hartu dezaketen mehatxuzko keinuak ekidin.

**Informazioa eskatzeko,** Orozkoko eta Murgiako turismo-bulegoetara jo dezakezu, edo gure webgunean kontsultatu: *www.gorbeiaeuskadi.com*

**Respeta el entorno, la flora y la fauna.** Evita hacer ruido, no hagas fuego y lleva atado a tu perro.

**Mantén limpio el entorno.** No abandones basura; deposítala en los contenedores o llévatela.

**Respeta la señalización.** Aparca en lugares habilitados, utiliza los caminos y cierra las cancelas.

**Atención a los perros pastores**, no los molestes, están trabajando. Si se acercan, mantén la calma, no corras y evita gestos amenazantes que puedan interpretar como un ataque.

**Para solicitar información** puedes acudir a nuestras oficinas de turismo ubicadas en Orozko y en Murgia o consultando en nuestra web: *www.gorbeiaeuskadi.com*




track-a deskargatu

descárgate el track

Gaur egun ibilbide hau ez dago seinaleztatuta. Ibilaldia segurtasunez egin ahal izateko, deskargatu track-a zure GPS edo mugikorrean.

Hoy en día este recorrido no se encuentra señalizado. Para poder realizar la ruta con seguridad, descarga el track en tu GPS o smartphone.

| Ikurra | |
|---|---|
| Ibilbidea / Itinerario | Museoa / Museo |
| HASIERA / INICIO | Atsedenlekua / Área recreativa |
| Parrokia / Parroquia | Iturria / Fuente |
| Baseliza / Ermita | Taberna, jatetxea / Bar, restaurante |
| Hilerria / Cementerio | Aparkalekua / Aparcamiento |
| Dorretxea / Casa torre | Bus geltokia / Parada autobús |

ARTEA

15 **ARTEA EZAGUTZEN**
**DESCUBRIENDO ARTEA**

**GORBEIA**
**IBILBIDEAK ITINERARIOS**